



## Hiztegia aberats ezazu.

1 - Erranaldi hauek berridatz itzazu beltzez den hitzaren aurkako erran-nahia adieraziz.

Kottek orratzontzia ez du **saldu**.

Kottek

Negu hartan ez zuen **hotzik** egin.

Negu hartan

Galtzagorriak **beti** lanean ari dira.

Galtzagorriak

Galtzagorriak **ez dira** batere kontent.

Galtzagorriak

2 - Hitzak osa itzazu ereduari jarraikiz.

orratzen ezartzeko ontzia

orratzontzia

loreen ezartzeko ontzia

.....

itsasoan ibiltzen den ontzia

.....

landareen ureztatzeko ontzia

.....

zikinen ezartzeko ontzia

.....








## Testua uler ezazu.

### 2 - Testuaren zatiak eta irudiak motz itzazu eta ordenan ezar (ikus ondoko bi orrialdeak). Irudirik ez delarik, marrazkia egizu.

<p>Orduan Kotteri galdegin zioten:          -Zer egin behar dugu orain?          -Teilatua konpon ezazue, belarra motz, ura ekar, kabalak bil, gasna egin, jantzi zaharrak petatxa!</p>
<p>Eta hala egin zuten, behin betiko desagertu ziren. Orduan, Kotte gaixoa, lehen bezala gelditu zen, lan guziak berak egin behar!</p>
<p>Kotte etxera itzuli zen eta galtzagorriak lanean ezarri zituen.          -Alor honetan piperrak landa itzazue! -manatu zien Kottek.          Galtzagorriak alorrera joan ziren eta lana berehala bukatu zuten.</p>
<p>Orduan Kotteri ideia bat bururatu zitzaion.          -Har ezazue pasadera hau, zoazte iturrira eta ekar ezazue ura!          Galtzagorriak laster abiatu ziren iturrira, baina behin eta berriz entseatuz ere, ura ziloetatik eskapatzen zen.          -Agindu duzun lana ezinezkoa da! Beraz hemendik betiko ihes egingen dugu! -erran zioten galtzagorriek haserre bizian.</p>
<p>Behin bazen Kotte izeneko gizon bat, Getarian bizi zena.          Bizi guzian zorte txarrekoa izan zen. Azak landatzen zituelarik, harri erauntsi batek xehatzen zizkion. Neguko egur anitz biltzen baldin bazuen, negu horretan ez zen hotzik izaten.</p>
<p>Hala ere, laster kontsolatu zen. Egia erran, nahiago zuen bakarrik egon, galtzagorrien laguntza ukan baino...</p>
<p>Anitz lan agindu zien baina eguerdi gabe etxaldeko lan guziak eginak ziren eta galtzagorriak berriz ere galdezka hasi ziren:          -Zer egin behar dugu orain? Zer egin behar dugu orain?          Kottek ez zekien zer mana eta galtzagorriak goizeko lanen desegiten hasi ziren.</p>
<p>Erran eta egin. Gure gizona Baionara joan zen eta sorginak aipatu dendan, orratzontzi miresgarria erosi zuen. Dendariak hau erran zion:          -Galtzagorri ttipi horiek beti lanean izan behar dira. Bestenaz bazter guziak nahas litzakete.</p>
<p>Orduan, asperturik, bere zoritxarra gairitu nahian, sorgin batengana joan zen. Kotteren azalpena entzun eta, sorginak erran zion:          -Lagunduko zaitut. Baionan orratzontzi magikoak saltzen dituen dendari bat bada. Saltzailea aztia da. Zoaz eta erran iezaiozu ene partez, galtzagorritz bete orratzontzi bat nahi duzula.</p>



Testua uler ezazu.





## Testua uler ezazu. ✱

<p>Erran eta egin. Gure gizona Baionara joan zen eta sorginak aipatu dendan, orratzontzi miresgarria erosi zuen. Dendariak hau erran zion: -Galtzagorri ttipi horiek beti lanean izan behar dira. Bestenaz bazter guziak nahas litzakete.</p>	
<p>Anitz lan agindu zien baina eguerdi gabe etxaldeko lan guziak eginak ziren eta galtzagorriak berriz ere galdezka hasi ziren: -Zer egin behar dugu orain? Zer egin behar dugu orain? Kottek ez zekien zer mana eta galtzagorriak goizeko lanen desegiten hasi ziren.</p>	
<p>Orduan Kotteri ideia bat bururatu zitzaion. -Har ezazue pasadera hau, zoazte iturrira eta ekar ezazue ura! Galtzagorriak laster abiatu ziren iturrira, baina behin eta berriz entseatuz ere, ura ziloetatik eskapatzen zen. -Agindu duzun lana ezinezkoa da! Beraz hemendik betiko ihes egingen dugu! -erran zioten galtzagorriek haserre bizian.</p>	



Testua uler ezazu. ✱

<p>Erran eta egin. Gure gizona Baionara joan zen eta sorginak aipatu dendan, orratzontzi miresgarria erosi zuen. Dendariak hau erran zion: -Galtzagorri ttipi horiek beti lanean izan behar dira. Bestenaz bazter guziak nahas litzakete.</p>	





Testua uler ezazu.

2 - Ipuineko gertakariak ordenan idatz ezazu.

Handwritten text area with horizontal lines and downward arrows indicating a sequence of events to be ordered.



## Irakurtzen eta idazten treba zaituz.

Eguna: ..... Izena: .....

### 3 - Xerka eta harrapa

Hitz hauek letra zopan aurki itzazu:

ARAZO / SORGIN  
ORRATZAK  
PASADERA  
BASERRI / AGINDU

R	P	Z	A	S	D	I	O
O	A	K	K	O	E	A	R
I	S	D	E	R	I	G	R
L	A	A	R	G	O	I	A
A	D	O	R	I	Z	N	T
R	E	M	A	N	D	D	Z
A	R	A	Z	O	Z	U	A
B	A	S	E	R	R	I	K

Eguna: ..... Izena: .....

### 3 - Xerka eta harrapa

Hitz hauek letra zopan aurki itzazu:

ARAZO / SORGIN  
ORRATZAK  
PASADERA  
BASERRI / AGINDU

R	P	Z	A	S	D	I	O
O	A	K	K	O	E	A	R
I	S	D	E	R	I	G	R
L	A	A	R	G	O	I	A
A	D	O	R	I	Z	N	T
R	E	M	A	N	D	D	Z
A	R	A	Z	O	Z	U	A
B	A	S	E	R	R	I	K





## Hizkuntza azter ezazu.

### 3 - Gramatika

Erranaldiak osa itzazu aditza pluralean emanaz.

Galtzagorriek lan **bat** egin **zuten**.

Galtzagorriek lan **guziak** egin .....

Zuk ur**a** ekarri **zenuen**.

Zuk urontzi**ak** ekarri .....

Guk egur**a** bildu **genuen**.

Guk ardi**ak** bildu .....

Nik teilatu**a** konpondu **nuen**.

Nik leiho**ak** konpondu .....

Kottek arto**a** landatu **zuen**.

Kottek az**ak** landatu .....

Lagunek baloi **bat** ekarri **zuten**.

Lagunek pilot**ak** ekarri .....

zituzten

zituzten

nituen

zituen

zenituen

genituen